67. zenbakia - 2007ko abendua

artzape

GETARIARRON TOPAGUNEA

GURASO ESKOLA

] GAZTELEKUAREN URTEBETETZEA]

GABONETAKO KONTZERTUA]

Txerrikume Koadrila ederra!!!

TXOKO
ERRETEGIA
kaia gainean. Tlf. 943 140 539

OSTOLAZA
EDARITEGIA
kaxuelitak eta plater konbinatuak
Elkano, 33 Tel.: 943 140 214

Saiazgetaria
HOTELA
BILERA GELA DAUKAGU
Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa
T 943 140 143
F 943 140 345
E info@saiazgetaria.com
W www.saiazgetaria.com

SAN PRUDENCIO
JATETXEA
JATETXEA - ERRETEGIA
20808 GETARIA
(ERREPIDETIK 600 METRORA)
IKUSPEGI BIKAINAK
943 14 06 27 - 943 14 04 11

OSTOLAZA
ANAIAK
Tailer mekanikoa.
Soldadura eta kaldereria.
Txoritonpe industri gunea, 20.
Ionja, portua z/g
20808 Getaria
Tel.: 943 140 110

kutxa

ITSAS
MENDI
gutiziak
Kaia z/g
Tel.: 943 140 993
Mugikorra: 649 947 855
www.maisor.com
20808 GETARIA

BABEXA
Getariako dendari elkartea

ENBATA
Kale Nagusia, 14 - DONOSTIA 943 424797

ELKANO
Jatetxea
Herrerieta, 2
Telefonoak: 943 14 00 24
943 14 06 14
20808 GETARIA

POLITENA
GURE BEREZITASUNAK:
• Aste egunean:
Eguneko Menua
• Jai egun eta Asteburuetan:
Luxuxko Pintxoak,
Bokatak eta Razioak.
• Eramateko eskaerak:
• Wi-Fi zerbitzua.
GETARIA
Kale Nagusia, 9
Tel. 943 140 113

ERROTA
OPIL - OKINDEGIA
Elkano, 7
Tel.: 943 140 017

KAIA - KAIPE JATETXEA
General Arnao, 4 - 20808 GETARIA (Gipuzkoa)
Tfno. 943 14 05 00 • Fax 943 14 01 21 • www.kaia-kaipe.com

INDAUX
Tel.: (+34) 943 899 100 Fax:(+34) 943 899 101 indaux@indaux.com
INDUSTRI AUXILIARRAK (INDAUX), S.A. SAN PRUDENTZIO, S/N. 20808 GETARIA
APDO. 132. E-20800 ZARAUTZ (GIPUZKOA) www.indaux.com

“Abenduak jai huts eta gau huts”

artzape

67. zenbakia

2007ko abendua

]5/Inkesta: Urte berrirako promesak

]6-7/Getarian zer berri?



Gaztelekuaren urtebetetzea

Gabonetako kontzertua

]8-9/Elkarrizketa: Amaia Vazquez

]10-11/Erreportajea: Uxotegiko bisitaria



]12-13/Argazkien Txokoa:

Euskararen Nazioarteko Eguna

]14-15/Erreportajea: Babexa Dendari Elkartea

]17/ELAN-EUSKADI

]19/Petrilaren harritarteetik

]23/Akordatzen

artzape
Eskualtxeta kulturgunea
Krixketaneko Iturrigaina

Tel.: 943 00 05 48
artzape@topagunea.com

Gure Txeru Elkartea

[argitaratzailea] Gure Txeru Elkartea [koordinazioa] Amaia Iribar eta Maider Ostolaza [lan taldea] Izaskun Larrañaga, Monika Uzkiza, Ane Azkue, Jon Illarramendi, Josune Urresti, Kepa Iribar, Zigor Saizar, Amets Etxabe, Irantzu Ezenarro, Aitor Irigoien, Beñat Gereka, Mikel Mugika [kolaboratzaileak] Nika Lertxundi [maketazio berria] Vicente Dávila [argazkiak] Artzape [publizitatea] Artzape [inprimaketa] Gertu [tirada] 1.150 ale
[lege gordailua] SS-504/01 [ISSN] 1578-469X

Getariako Udalak, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

] gutunak

Bidezuzen estatua

Botere banaketa omen. Epaile, politiko, zein polizi. Danak bat ez?

Botoak ere banatuta omen. PPSOE. Danak bat ez?

Egunkariak ere Correo Español, Diario Vasco, El Mundo, El País zein ABC. Danak bat ez?

Editorialak ikusterik baino ez dago. Danak faxistak. Amen!

Mikel Larrañaga Jauregi

Egunerokoaren anekdota

Aurtengo Udalbatzarretako aktei begira jarri eta ekainak 26an honako hau irakurri dut: "Alkate jaunak honako kargu hauek adierazitako baldintzekin liberatzeko proposamena egin du: Alkatearen kargua liberatzea: egun osoz eta "udalhitzen" 24.mailari dagokion lansariarekin. Lehen alkateordearen kargua liberatzea: egun osoz eta "udalhitzen" 24. mailari dagokion lansariarekin..." "...Proposamenaren alde bozkatu dute EAJko zinegotziek:..." (4 izan dira) "...Aurkako botoa eman dute Aralarko zinegotziek..." (orotara 2) "...Abstenitu egin dira lehenengo alkateordea Antonio Arruti Caro eta Alkatea Andoni Aristi Ibarra, gai honetan interes zuzena dutelako...".

Ondorioz...Getariarren borondatearen eta Udal Demokratiko baten arabera, bi pertsonen liberazioa atzera bota beharko litzateke. ANVk publikoki birritan adierazi baitu liberazio hauek gehiegizkoak iruditzen zaizkiola eta beraz, kontra dagoela. Getariarren arabera hauxe izango litzateke bozketaren emaitza: 5 boto aurka (ANVko 3 + Aralar 2), 4 alde (EAJ) eta bi abstentzio (EAJko interesatuak).

Baina...Alderdien legeaz baliatzen direnez, "...Bozketaren emaitzaren argitara, hau da, lau boto alde, bi aurka eta bi abstentziorekin...", "...alkateak onartutzat eman du bozkatutako proposamena...".

Eskubideak urratzen dituen lege antidemokratikoa gainditu eta Getariarren borondatea errespetatze aldera EAko hautagaiak agertutako ausardia izateko eskatuko nieke Udal demokratikoan sinesten duten Getariarrei. Dimitituz eta legea aplikatuz (LOREG 182.2) Getarian Demokrazia posible da. Azkoitian egin zuten bezala, Getarian ANVko kideek eserlekuak legalki bete ditzakete.

Haritz Alberdi Arrillaga

Zure gutuna Artzapen argitaratzea nahi baduzu, Txeruko postontzian utzi, Eskualtxetara ekarri edo artzape@topagunea.com helbidera bidali zure izen-abizenekin. Gutunak gehienez 200 hitz izan beharko ditu eta luzeagoak direnak mozteko eskubidea izango du Artzapek. Ez dugu testu iraingarririk onartuko eta Artzapek ez du bere gain hartuko argitaratzen diren iritzien gaineko erantzukizunik.

EGUBERRI ON!

2007, urtea bukatzen ari da, eta ez dakit zuei ala gertatu zaizuen, baina Artzape taldekoi ziztu batean joan zaigu urtea; ohi den bezala, gauza onak zein txarrak izan ditugu(badakizue, bekatu txikiak), baina, axola ez bazaizue, Olentzerotan ikatzik nahi ez dugunez, txarrak alde batera utziko ditugu, badaezpada ere.

Horrenbestez, eskerrak eman nahi dizkizuegu aldizkaria osatzen laguntzen gaituzuen guztioi, eta besterik gabe, Artzapeko kide guztien partetik, Gabonak ondo-ondo pasatu eta

URTE BERRI ON GUZTIOI!!!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

] inkesta Aitor Irigoien, Beñat Gereka eta Mikel Mugika]

Urte zaharraren amaiera eta berriaren hasiera, promesa garaia izaten da jende askorentzat. 2008. urtea bertan dugun honetan, egin al diozu eskaera edo desiorik urte berriari? Urtero egin ohi al duzu hau? Gero urtean zehar, saiatzen al zara aipatu desioak betetzen?

Urte berriari gauzak eskatzeko ohitura badaukat eta promesak ere egin egiten ditut. Hori bai, gero ez ditut betetzen eta honetan saiatu ere gutxi saiatzen naiz. 2008ari dagokionez berriz, aurtengoa bezain ona izatea eskatuko nioke eta baita neskatan egin edota neska aurkitzea ere.

Andima Iribar

2008ari, beti bezala, denok ongi izatea eskatzen diot, hau da, familian dena ondo joatea eta ezer txarrik ez pasatzea. Horretaz gain, eta futbol kontuetan, Erreala lehen mailara itzultzea ere nahiko nuke.

Aitor De La Hoz

Egia esan, ez dut ohiturarik urte berriari ezer eskatzeko. Baina behin eskatzen hasita, aurtengo baino txarragoa ez izatea gustatuko litzaidake eta honekin konformatzen naiz, ezer gehiagoren beharrik gabe.

Mikel Olasagasti

Ohitura handirik ez daukat, baina aurreneko gauza bezala, osasuna eta ondo bizitzea eskatuko nituzke, eta hortik aurrerakoa "bienvenido sea". 2008ari begira, aurrekoaz gain zerbait desio izatekotan, Getariako Keta Futbol Taldea mailaz igotzea litzateke.

Xabier Larrañaga

Ez dut eskaera berezirik egin ohi izan, gero ia inoiz ez baitira betetzen. Baina 2008 gainean dugula, "ante todo y sobre todo" osasuna izatea da nire eskaera, hau baita oinarrizkoena. Gero, familian dena ondo joatea, Erreala lehen mailara igotzea eta txibitan ere urte oparoa izatea nahiko nuke. Eta datorren urtean, data hauetan, zuek berriz niri inkesta hau egiten egotea, dena ondo joan denaren seinale izango baita.

Jesus Mari De La Hoz

Ez dut ohitura handirik urte berriaren aurrean eskaera edo desiorik egiteko, eginda ere ez ditut eta betetzen. 2008ari zerbait eskatzekotan, betikoa aipatuko nuke, osasuna izatea.

Iñigo Olabarri

IRIZABAL,S.A.
ARRAINAK
IPAR KAIA Z/G 20808 GETARIA (GIPUZKOA) TEL.: 943 89 60 10 FAX: 943 14 00 30 C.I.F.: A-20090981

Artzapetik begira

Aitor Emazabel

Eguberrien atarietan bazterrak argiz bete zaizkigu: koloreetan edo kolorerik gabe, klasiko zein modernoak, hor daude ehunka bonbilla...

Baina argietatik aparte, badira urte hauetan ugaritzen ari diren apaingarriak: balkoietara edo lehiotara igo nahian dabiltzan " Bizar Zuri" edo Olentzeroak dira. Horiek ere Eguberrien aitzindari bihurtu dira gure artean.

Behar bada, balkoietako apaingarri horiek ez dute berealdiko garrantzirik, eta ez dute merezi beraietaz hitz egitea... Baina niregan gogoeta txiki batzuk behintzat sortu dituzte...

Gure apaingarrietan gizarte edo giro aldaketa bat antzeman daiteke: batetik gure oparotasunaren seinale dira (oinarrizkoa falta denean nekez gastatu daiteke ezer apaingarrietan), bestetik guregan bizi dugun "globalizazio edo mundializazioaren" adierazgarri dira. Lehen guretzat arrotzak gertatzen ziren ohiturak eta irudiak gureganatu ditugu; telebistan edota filmetan ikusi ditugulako, marketing on batekin saldu dizkigutelako.

Ez, apaingarriak ez dira uste bezain garrantzi gabekoak... Batzuentzat eztabaidagai bihurtu dira, (?Cientruenigoko) apaizaren kasua da. Berak lehen aipatu ditugun " Bizar Zuri " horietan Eguberri kristauekin bat ez datorren apaingarri bat aurkitu du. Eta hona zer bururatu zaion: apaingarrien "gudua". Balkoi batzuetan " Bizar Zuri " dagoen bezala, besteetan Jesus Haurraren irudi handia egon behar duela.

Nire apaiz laguna errespetatuz, ez da hori nik gaur hartu nahi dudan bidea. Bakoitzak jarri ditzala bere Eguberria ospatzeko erakin bat datorren apaingarriak, eta kristauki ospatu nahi duenak ez dezala ahaztu aspaldiko txinatarren esana " ilargia hain ederra izanik, ez zaitez bera erakusten dizun behatzari begira geldi". Hau da, apaingarriak ez daitezela izan sinesmendunontzat Eguberriaren misterioa eta sakontasuna gozatzeko eta ospatzeko oztopo.

Horixe eskatzen dut behintzat niretzako. Dena dela bihotzez, sinesmendun izan edo ez EGUBERRI ON!

Santo Tomas jaia ospatu da

Aurten goiztiarra izan dugu Santo Tomas jaia Getarian: abenduaren 15ean! Baina ez pentsa, egiten zuen hotzari aurre egiteko, bildu zen jendeak gustura hartu zituen bertan eskaintzen ziren taloak, pintxoak, sagardoa, txakolina… Urtero bezala, Gure Txeruko kideek antolatu zuten, baina aurten berrikuntza batekin: Gaztelekuko gazteek parte hartu zuten taloak egiten. Giroa hotza izan arren, ederki alaitu zuten trikitilariek eta pandero joleek hango giroa. Horrez gain, arratsaldean Txerukoek gaztaina erreak banatu zituzten dohainik.

Txorizoak prestatzen jo eta su.

Gazte ek taloak egiten ikasi zuten.

Gabonetako kontzertu bikaina

Getariako Elkano Musika Eskolak antolatuta, urtero ohi den moduan, Gabonetako kontzertuaren emanaldia izan zen Salbatore Deunaren Elizan joan den abenduaren 16an. Bertan, inoiz baino parte-hartzaile gehiago izan ziren: Musika Tailerreko haurrak, Musika Mintzairako haurrak, Talde Instrumentala, Gazte Alaiak Txistulari taldea, Getariako Abesbatza eta Getariako Musika Banda, eta noski, eliza erabat bete zuten ikusleak. Talde bakoitza banaka jardun eta gero, guztiek batera *Hator-Hator* abestu zuten.

Musika Eskolako haurrek gabonetako hainbat kanta abestu zituzten.

Banderen bedeinkapena

Abenduaren 16an, Getariako Esperantza traineruak irabazitako 10 bandera eta nesken trainerillak irabazitako beste bi bandera bedeinkatu ziren Salbatore Deunaren elizan. Ondoren, beti ere Gazte Alaiak Txistulari taldeak lagunduta, udaletxeko plazara gerturatu ziren, eta han, Eugenio Camiok aurreskua eskaini zien arraunlariei egindako denboraldiagatik, eta baita herriari ere, urte hauetan guztietan emandako laguntzagatik.

A. Manzisidor

Eugeniok aurreskua dantzatu zuen unea.

Gabonetako III. Postal Lehiaketa

Aurtengo Postal Lehiaketan marrazkien irabazleak Onditz Galdos, Aratz Perez, Lore Larrañaga, Maikel Larrañaga eta Ibai Eizagirre izan dira, eta esaldien irabazleak, berriz, Nahia Arostegi, Aratz Lertxundi, Enara Iñurrieta, Irati Azpeitia eta Saioa Martinez de la Hidalga. Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleen artean, guztira 74 lan aurkeztu dira. Irabazleen lanekin egindako postalak salgai jarriko dira herriko dendetan, eta postal horien salmentarekin lortuko den dirua ELAN-Euskadi Elkarteari emango zaio.

Frontoia: 1907-2007

Aurten izan da herriko frontoiaren 100. urtebetetzea: 1907ko abuztuaren 6an, Salbatore Deunaren egun berean inauguratu zen; urte hartan, Udalak, herriko semea zen Juan Eizagirre harginari erosi zion frontoiaren obretarako behar ziren harriak, harlanduzkoak eta manposteriakoak.

Frontoiaren irudi orokorra eta armarria.

Gaztelekuak lehen urtebetetzea!

Gaglo Gaztelekuak jada lehen urtea beteko du abenduaren 22an: martxan jarri zenetik, asteburu guztietan makina bat gazte joan izan da bertan denbora pasa, tailerrak egin, filmak ikusi, irteerak egin... hau da, lagunekin egoteko txokoa izan da; bertan hezitzailea den Venesa Garciak balorazio ezin hobea egin digu: "Irekita dagoen bakoitzean jendea dago, beti zerbait egiten, tailerrak direla, jokoak, lehiaketak…". Urtebetetze egun horretan, Gaztelekuak herritar guztientzat ateak zabalduko ditu, eta bertara hurbiltzen den edonori, txokolate beroa eskainiko zaio.

Gaztelekua.

Itsasoaren indarra nonahi

Haitzetara eroritako hesi zatia.

Joan den abenduaren 9tik 10erako gauean ikaragarrizko denboralea izan zen: haize bolada handiak, itsaso bortitza... izugarria. Itsas denborale horren ondorioz izandako kalteak kostaldeko hainbat herrik pairatu zituzten: gurean, Getaria eta Zarautz arteko itsas pasealeku berrian, adibidez, 100 metroko hesi zatia puskatu zuen itsasoak; horrez gain, portuko zenbait itsasontzi, olatuek eraginda, mugitu egin ziren beren tokitik.

Balin konferentzia

200 herrialdetik gorak parte hartu dut Nazio Batuen Erakundeak Indonesian antolatu duen Aldaketa Klimatikoaren Konferentzian. Helburua, bi astez luzatu den konferentzian, etorkizuneko negoziaketetarako oinarriak finkatzea izan da, Kiotoko Protokoloa ordezkatzeko.

Nazio Batuen Erakundeak berotze efektuaren kontrako konpromiso zabala lortu nahi du bi urteren buruan. Hala, albiste ona Australiak eman du Kiotoko Protokoloa sinatuz. Izan ere, Kevin Ruud lehen ministro berriak erabaki hori hartu du, eta lehen ez bezala, Kiotoko protokoloa errespetatu egingo dutela adierazi du.
Txinarenganako eta AEBenganako presioa handitu egin da, bi estatu horiek baitira berotze efektua eragiten duten

gasen murrizketarako konpromisoa hartu ez duten herrialde handi bakarrak.

Datozen bi urtetarako negoziaketetako oinarriak eta mugak ezarri nahi izan dira Balin. Lau izan dira funtsezko gaiak: aldaketa klimatikoa arintzeko formulak hitzartzea, herrialdeei berotze efektuari egokitzeko neurriak erraztea, efektu horiei aurre egiteko teknologiak konpartitzea eta horiek diruz hornitzeko mekanismoak finkatzea.

Informazio gehiago:
Tel.: 943 896024
www.urolakosta.org
maizpuru@getaria.org

Amaia Vazquez

Duela lau urte, Udalak herriko hainbat entitateekin egindako bilera batzuetatik ondorio batzuk atera ziren: batez ere, 12 urtetik aurrerako gazteekiko kezka nabarmena zegoen; hori dela eta, adin horretara iritsi aurretik prebentzioa landu behar zela adostu zuten, eta prebentzioak, familian hasi eta eskolan jarraitzen duela kontuan izanik, Guraso Eskola sortzearen ideia indartu zen. Beraz, Drogomenpekotasun Prebentziorako Getariako Udal Planaren (2005-2009) baitan dagoGuraso Eskola, bideratzeko lagun bat dago: Amaia Vazquez.

Hona hemen Amaiarekin izan dugun elkarrizketa.

Zer da Guraso Eskola?
Ikasleen gurasoei eta eskolako irakasleei zuzenduta dagoen ekimena da, batez ere, haurren hezkuntzan lagunduko duen informazioa, baliabideak... lantzen ditugu.

Zer lanbide duzu?
Psikologian aritzen naiz hainbat arlotan: haur eta gazteen prebentzioan hezkuntza eta klinika mailan, psikoterapian, sexologian..

Aurten hirugarren urtea duzu Getariako eskolan Guraso Eskola bideratzen; zein da zehazki zure betebeharra?
Hiru zutabe ditu: guraso-eskola, irakasleen formakuntza eta orientabide indibidualaren zerbitzua.

Beste herrietan ere jarduten al duzu Guraso Eskolatan?
Beste herrietan aspaldidanik burutzen dut lan hau: Getarian Udaletik egin zitzaidan proposamena eta oso gustura ari naiz zuekin lanean.

Zer gai lantzen dituzu gurasoekin?
Eta irakasleekin?
Gurasoekin formakuntza hainbat gairen inguruan:

seme-alaben garapen psikoafektibo soziala, loa, elikadura, sexualitatea, agresibitatea eta mugak... irakasleekin gai horiek eta ikasleekin sortzen zaizkien zailtasunen aurrean nola jokatu…

Zein dira gurasoak gehien kezkatzen dituen gaiak?
Seme-alaben autonomia, komunikazioa, arauak nola ezarri, nola ulertu seme-alaben zenbait jokabide...

Guraso Eskolan parte hartzen duten gehienak emakumeak dira. Zergatik uste duzu hala dela?
Nahiz eta gauzak aldatzen ari diren, seme-alaben hezkuntza oraindik ere emakumeen eskuetan dago eta eguneroko jardueran horiek izaten dira denbora gehien pasatzen dutenak seme-alabekin. Esan bezala gauzak aldatuz doaz, Getariako Guraso Eskolan emakumezkoak dira gehiengoa, hala eta guztiz ere orientabide zerbitzura aitak eta amak etortzen dira elkarrekin.

Arazo bat baldin badago, zein prozedura jarraitzen duzue?
Eragile guztiekin biltzen gara; gurasoek eskatzen badidate haiekin biltzen naiz eta ondoren beharrezkoa ikusten badugu tutorearekin biltzen naiz. Beste batzutan irakasleek ekartzen didate kasua eta familiarekin biltzen gara; hau da denen artean ekiten diogu egoerari.

Adinaren arabera, zailtasunak gehitu ala gutxitu egiten dira?
Adin bakoitzak ditu bere zailtasunak, ez gehiago eta ez gutxiago, desberdinak baizik.

Getaria bezalako herri txiki batek, zer abantaila edo desabantaila izan ditzake haurrei dagokionez?
Abantailak gizarteratzen prozesuan ematen dira, hau da errazago dute sozializazioa; baina arazoren bat baldin badago arlo honetan zailtasunak handiagoak dira, esparrua oso murritza delako eta aukera gutxiago daudelako estrategia baten aurrean

Hezkuntza erabat aldatu da; gaur egun bigunegiak al gara?
Ez, baina galduagoak sentitzen gara egungo gurasook hezkuntza markoa ez dugulako oso garbi ikusten. Ez dugu nahi lehengo autoritarismoa baina askatasunean hezitzean ikuspegi inportantea galtzen dugu; hau da seme-alaben hezkuntzan mugak zer garrantzitsuak diren autonomia lortzeko. Era berean seme-alabekin denbora gehiago pasa behar dugu, ez da nahikoa kalitatea, kantitatea ere behar da, eta egungo gurasook denbora gutxi daukagu eta hemen gauza asko galtzen dira.

Zuk haurrak dituzu: zure lanbidea abantaila izan daiteke, ala beste guztiok bezala, bidean zailtasunak topatzen dituzu?
Abantaila bakarra zera izan daiteke: une batean hobeto uler dezakedala zergatik egiten duten gauza bat edo zer sentitzen ari diren, baina arauak betetzeko haiekin ditudan borrokak, edota entzuteko zorionez beste gurasoenak bezalakoa izaten dira. Eta askotan ere pazientzia galtzen da; azken finean guraso perfektuak izatea ez da helburu, baina bai eredu osasuntsuak izatea.

“Seme-alabekin denbora gehiago pasa behar dugu, ez da nahikoa kalitatea, kantitatea ere behar da”

Guraso Eskolako saioetako bat.

Usotegiko bisitaria

Basurde-txerrikumeen pasadizoa

“113 inez,114 euki ez”

Usotegiko etxekoandrea baserriaren aurrean.

Basurdekumea amarekin batera tripa betetzen.

Badira hainbat hilabete, basurde basati gazte batek, Usotegi baserria bisitatu zuela; baina egun haiek ez ziren nolanahikoak izan basurdearentzat, lan ugari egin eta ederki gozatu baitzuen, eta gainera, egindako lanak bere emaitza izan zuen, emaitza ederra eta ugaria inondik inora ere: 42 txerrikume!

Istorio honek maiatzean izan zuen hasiera: udaberriko egun haietako batean, Usotegiko nagusia txerri emeentzat kanpoan egina duten “txaletera” sartzean, bertan txerri bat gehiago zegoela konturatu zen, baina han zegoena zegoela, txistu batean alde egin zuen. Hala ere, inguruan hainbat hanka-marka topatu zituztenean, berehala ohartu ziren basurdea zela (lehen ere ikusita zituzten basurdeen hanka markak, baina orduan emeak ez ziren kanpoan egoten. Harrezkero, Usotegi baserrikoak basurdea berriro noiz etorriko zain egon ziren: eta hala, basurde gaztea berriro bueltatu zen, eta guztira lau egun behar izan zituen bertako lau txerri emeak umatzeko (lehen egunean bi txerri umatu zituen, eta handik hiru egunera, beste bi). Behin guztiak umatu zituenean, aitak hala nola engainatu, eta hil egin zuen. Baserriko etxekoandreak basurdearen deskribapen zehatza egin digu: “Basurdea gaztea zen, 9/10 hilabete ingurukoa (hortz agin txikiak zituen) eta 70 kilo gutxi gorabehera: luzea eta txima handia zuen. Jaterako unean larrutu egin behar izan genuen, ezin zitekeen eta ile luze hura erre. Ez zuen gantzik, dena giarrea zuen”.

Irailaren 22an, 113 egun pasa eta gero (ez gehiago, ez gutxiago), lau emeek 42 txerrikume erditu zituzten (batak zortzi, besteak hamabi...); egun batean bik erditu zuten, eta handik hiru egunera, beste bik. Txerriek erraz izaten dituzte umeak, bata bestearen atzetik purrustada baten moduan, baina une horretan izaten da arrisku handiena: batetik, txerrikumeek ez dute indarrik izaten, eta bestetik, erditzen ari den emeak, minaren minez, ez dira umea azpian hartzen duenik konturatzen. Haatik, behin hiruzpalau ordu pasa eta gero, saiatzen dira azpian ez hartzen. Halaxe gertatu zen Usotegi baserrian ere: "Erditzen ari zirela konturatu orduko, tamalez, horietatik guztietatik 6 txerrikume azpian hartu eta hilda zeuden".

Beraz, aurrera egin zuten 36 txerrikume haiek 40 bat egunez izan ziren Usotegi baserrian, eta bitarte horretan, txerri emeen bularretik elikatu ziren. Txerriek edoskitze berezia izaten dute: txerrikume bakoitzak bere titia izaten du, ez dira sekula nahasten, baina hemen ere azkarrenak, berari dagokion titia azkar-azkar xurrupatu, ahulenari bultza, eta harena ere edaten du. Ia guztiek basurdearen larru antzekoa zutela aitortu digute: "Txerrikumeek aita basurdea zuten, eta birraitona ere hala zuten, euren amen aitona basurdea zen eta!". Azkenean, txerrikume horietatik guztietatik hirukin geratu ziren, beste batzuek, familiakoei oparitu eta gainontzekoak saldu egin zituzten.

Jaio berritan alde batetik bestera gelditu gabe ibiltzen zirela kontatu digute: "Galtzetatik eta galtzerdietatik tiraka, baina besoetan hartzen hasiz gero, ikaragarrizko oihuak egiten zituzten, eta gainera, amak ere frente egiten zuen.

Esperientzi polita bizi izan dutela aitortu digute Usotegikoek: "Beti izan ditugu txerriak, baina inoiz ez basurdekumerik! Ederra izan da horrenbeste txerrikume ikustea!".

Usotegiko aita basurdearekin.

Basurdekume koadrila ederra!

Amaia Iribar eta Maider Ostolaza

EUSKARAZKO ZENBAIT WEB ORRIALDE INTERESGARRI:

Software euskaraz: **librezale.org**
Hiztegiak: **hiztegia.net**
Informazioa: **sustatu.com, aurki.com, bildu.net, zabaldu.com**
Egunkaria: **berria.info**
Lurralde euskalduna: **uema.org**
Informazioa: **erabili.com**
Posta elektronikoa lortzeko: **euskalerria.org**
Bilatzailea: **elebila.eu**
Bideoak kargatzeko: **euskaltube.com**
Euskarazko software katalogoa: **http://softkat.ueu.org/**
Euskarazko programak deskargatzeko: **euskadi.net, euskara alorrean**
Blog pertsonalak dohainik sortzeko: **blogak.com, blogari.net, mundua.com**
Kultura: **www.nontzeberri.com**
Gazte informazioa: **www.gaztezulo.com, www.gaztesarea.net, www.gazteaukera.euskadi.net**
Entziklopediak: **eu.wikipedia.org, http://www1.euskadi.net/harluxet/**
Hiztegiak: **www.hiztegia.net**
Lana bilatzeko: **www.bilalan.net**
Internet bidezko irratia: **www.irratia.com**
Natura: **www.euskalnatura.net**

Euskararen Nazioarteko Eguna

Abenduaren 3an ospatu zen Euskararen Nazioarteko Eguna; Getarian ez ezik, Euskal Herriko txoko guztietan ospatu zen (nahiz eta ospatu behar izanak zer pentsatua ematen duen). Getarian hainbat ekintza antolatu ziren: batetik, Udalak antolatuta, Zirika Zirkus haurrentzako ikuskizuna izan zen Aldamar Kulturgunean ("Edan ase arte" literatura musikatua bertan behera geratu zen jende gutxi joan baitzen); bestetik, "Euskara Plazara" lelopean, Iturzaeta Herri Eskolako ikasle, irakasle eta gurasoek eguraldi txarra zela eta, Berdura plazan ospatu zuten ekitaldia, benetan jendetsua. Bertan, hamahiru haurrek eta irakasle batek hizki bana eraman zituzten, non EUSKARA PLAZARA irakur zitekeen, eta *Euskara plazara*, *Euskal Herrian Euskaraz* eta *Behin betiko* abestu zituzten.





SKARO

Babexa: dendarien estalpea

1995. urtean hasi ziren elkartea sortzeko lehen urratsak: Rosa Uzin, familiako denda berritu behar zutela eta, herriko produktuak erabiliaz zer eskain zitezkeen arduratuta zebilen, hau da, etorkizunari begira kezkatuta. Horrez gain, garai hartan herriko hainbat dendek ateak itxi zituzten, eta kanpotarren bat herrian halako zerbait jartzeko asmotan ere bazebilen. Beraz, espabilatu beharra zegoela konturatu zen. Horrela, bere kezka bai Udalari eta baita gainerako dendariei jakinarazte-arekin batera, dendarien batzar bat eratzeko lehen pausoak ematen hasi ziren.1996ko uztailaren 29an, lehen batzar orokorra egin zuten, eta hasieran ideia bat besterik ez zena, elkarte batean gauzatu zen: Babexa Dendari Elkartean.

Ohi den bezala, elkartearekin bat etorriko zen logotipoa egin zen: herri mailako lehiaketa egin zen, baina batez ere Kultura Elkartean zeuden eskolako ordezkariek zabaldu zuten lehiaketaren berria. Orduko irabazlea Jaione Zulaika izan zen, originaltasuna eskaintzeaz gain, elkarteko gremio guztiak ordezkatzen baitzituen.

Gaur egun, 24 dendek osatzen dute elkartea; bazkide izateko ez da aparteko ezaugarririk behar: urtean bakoitzak 72€ko kuota ordaindu, eta Gabonetako kanpainan norberaren produkturen bat jartzen dute. Elkarteko partaide izateak berriz hainbat abantaila ditu: lehenik eta behin elkarteak berak eskaintzen duen babexa, ikastaroak egiteko aukera, Udala eskaintzen duen zenbait laguntza (kartelak... egiterakoan), zenbait dirulaguntza...

Babexaren lehen logotipoa.

Sorreratik hainbat baja izan ditu, baina sarrerak gehiago izan dira: hain zuzen ere, duela gutxi beste 5 bazkide berri sartu dira elkartera. Bestalde, tabernariak bazkide izateko saiakeraren bat egin zen, baina azkenean ez zen ezertan gauzatu.

Bazkideak:

Sopas: elektrizitate denda
Sahatsa: mertzeria, arropak eta hornidurak
Iñaxita: janari-denda
Izarri(2): kafetegi eta okindegia
Juanjo: janari-denda
Merke: janari denda
Amalur: belar denda
Josu: harategia
Getariano: kafetegia
Arruti: harategia
Maria Arruti (Ekain): mertzeria
Salanort: artisau kontserbak
Iruretagoiena: drogeria
Eugenio: aseguruak
Mari Nieves: arrandegia
Gertrudis: mertzeria
Eulali: janari-denda
Itsas Mendi: artisau kontserbak
Elkano: arrandegia
Harritarte: jostailuak, goxokiak...
Aliprox: janari-denda
Portu: itsas estiloko jantzi eta dekorazioa
Ana Mari: lurrindegi eta hornigarriak

Bestalde, duela gutxi aldatu dute elkarteak hasieratik izan duen logotipoa: horretarako lehiaketa bat antolatu zuten, eta bertan, Ane Azkue getariarrak irabazi zuen.

BAZKIDEAK

Gabonak gainean direla eta, kartel berri bat egin dute, “Dendarik gabe, herririk ez” lelopean; izan ere, dendarik, tabernarik... gabe kaleetan ez litzake bizitzarik izango, eurek ematen diote kaleari bizia. Getarian erosketak egitera aldameneko herrietara joateko ohitura badago; beste hainbat konturekin gertatzen ohi den bezala, erabaki hori norberaren esku dago, norberaren esku dago herriaren aldeko apustua egitea.

SAN ANTON PARKE EKOLOGIKOA

Orain egun batzuk, azaroaren 23an, hirugarren eta laugarren mailakoak, Irungo Plaiaundi Parke ekologikoan egon ginen. Bertan, padurako hegaztiei buruz eskulanak egin genituen eta parkean zehar ibilbide gidatua egin genuen. Ondoren, Hondarribiako alde zaharrera joan ginen.

Txangoa egin baino lehenago, gelan hegaztiei buruzko orri batzuk bete genituen. Zuzenean ikusi genituenean parke ekologiko baten beharraz konturatu ginen; zer nolako aberastasuna ematen dion gure ingurumenari honelako txoko bereziak izatea.

Gure herrira bueltatuz, landaretza gaia lantzen ari garenez San Anton mendira joan behar dugu eta orain San Anton mendian dauden zuhaitzak aztertu behar ditugu. Bi urte badira, seigarren eta bosgarren mailakoek hogei zuhaitzen azterketa egin zutela. Bakoitzaren fitxa osatu zuten informazio ugari emanez eta ordenagailuz egindako aurkezpen batean gure mendian dauden altxorrak aurkeztu zizkiguten.

Gure txanda da oraingoa, lehenagotik dauden fitxak berraztertuko ditugu eta ahal dugun moduan osatu eta sailkatuko ditugu. Lan hau, hilabete honetan egiten ari gara eta jarraian, aurkezpena osatzeko asmotan gabiltza.

Bere horretan geldituko da gure lana. Beste lan asko bezala, tristea da gure herrian ez edukitzea Irunen duten bezalako parke ekologikoa. Antzeko bat bagenu gure altxorren ezagutza zabaltzeko aukera izango genuke. Parketik hurbil interpretazio edo harrera leku bat egongo balitz, gure lantxoak eta adituek egindako fitxekin hain hurbil daukagun parke eder hau hobeto ezagutuko lukete datozen kanpotarrek.

Urteak joan eta urteak etorri, Zuhaitz Egunean birlandaketak, urtxintxak ekarri ziren bertako giroan sartzeko, bideak txukundu eta garbitzen dira. Baina, gure iritziz ez zaio behar adinako etekina ateratzen San Antoni. Hona hemen bada gure eskaera lerro hauetatik. Irunen ikusi genuen antzeko bat lortu daiteke, xumea, maila apalean,gure mendiko aberastasunak ezagutaraztea nahiko genuke.

4. mailako ikasleak

elan euskadi
ONGD - GGKE

Urtarrileko jardunaldiek 15 urte

Urte hasiera jardunaldiak eginez bete ohi du Elan Euskadi Gobernuz Kanpoko Erakundeak. 2008an ez da desberdina izango, gainera, "Getaria eta III. Mundua" izeneko jardunaldiek data borobila dute, hamabosgarren ekitaldia beteko dute.

Urtarrilaren 21etik 25era izango dira ekitaldiak, guztiak ere Alondia Zaharra aretoan. Lehen egunean, Elan Euskadik bere burua izango du hizpide. Taldeak munduan zehar abian dituen proiektuei buruzkoa izango baita lehen hitzaldia. Asteartean, garapenerako kontzeptuak izango dira gaia, Kolonbian leku aldatze egoeran dauden emakumeak eta Ecomujer Fundazioa. Hizlaria Jon Burgaña izango da. Zarauzko Udaleko zinegotzi da, eta talde honek egiten duen lanari buruz ariko da. Zarauzko Udaleko 26.000 euroko laguntza eman dio Ecomujerri, Elan Euskadik bideratzen duena, eta hurbiletik ezagutzen dute haien lana. Burgaña Kolonbian egon berri da: Kolonbian hiru milioi pertsona dira gatazka armatuaren ondorioz leku aldatzea jasaten dutenak, emakumeak eta haurrak direlarik kaltetuenak. Urtarrilaren 23an kontsumoari buruzko dokumentala izango da ikusgai, "Surplus: terrorized into being consumers" izenburupean. 2003ko lana da, Suediako ATMO ekoizetxeak internet bidez zabaldu zuena. Lan interesgarria da edukiari eta grabatuta dagoen moduari dagokionez. Egungo sistema politikoaren kritika zorrotza egiten du. Osteguna filmaren eguna izango da, "Kilonbo bateko bizipenak" pelikula ikusteko modua izango delarik, Iban Ayestaren lana. Azken egunean, ostiralean, "Surf irripartsua" izenburua duen diapositiba emanaldia izango da. Hemen bertan hizpide izan genuen Smiling Surfing In India ekimeneko kideak egingo dute emanaldia. Indiako haurrak lagundu zituzten, batetik oinarrizko beharrak (elikadura, osasuna, etab.) betez, eta bestetik surfaren bidez eguneroko errealitatea apur bat aldatuz. Indiako bizipenak kontatuko dituzte Iñigo Belartietak, Ion Eizagirrek, eta Axel eta Paulo Diazek.

Ekintza guztiak arratsaldeko 8etan izango dira, azken eguneko diapositiba emanaldia izan ezik, arratsaldeko 5etan hasiko dena.

GIROA TABERNA
·Plater konbinatuak
·Bokatak
·Pintxo goxoen aukera
Kale Nagusia, 24 - GETARIA - Tel.:943 140 800

Eugenio Uranga
Aseguru Artekaria
Herrerieta, 12
20808 GETARIA
Tel.: 943 140 120
faxa: 943 140 604
Mobila: 652 775 061
E-posta: eugeniouranga@hotmail.com

Amaia Lazkano
Miren Lazkano
San Prudentzioa auzoa
telefonoa: 943 14 00 67
Mugikorra: 669 258 061
faxa: 943 14 05 44
20808
GETARIA
Xabin Etxea
LANDA ETXEA - JATETXEA

] Nika Lertxundi [

ERNAI IGO ERNIORA! (3)

Aurreko bi ataletan, orain dela bi mila urte inguruko kondaira azaltzen digu Larrun artzainak. Azken atalean, erromatarrak Ernio azpira etorri ziren mendeku bila. Bi aldekoen indarra berdintsua zela konturaturik eta garaile garbirik ez zenez erromatarrek euskaldunei tratu bat eskaini zieten eta erantzunaren zain gelditu ziren.

Erromatarren eskaintza entzun ondoren, Larrun eta bere kideek egoera aztertzerakoan argi ikusi zuten borrokaldiaren hasieran zituzten gizonen erdiak haitz artean hilda edo zaurituta zeudela. Era berean, erromatarren indarrak ere erdira jaitsiak zirenaren susmoa ba omen zuten. Egoera ikusita eta eskaintza eztabaidatu ondoren, Larrun eta erromatarren mezularia berriro elkartu ziren Zelatunen. Larrunek horrela esan omen zion:

- Zuen eskaintza onartzen diagu eta prest dizkiagu gure 100 gudari onenak borrokaldirako! baina aurretik 6 egunetako epea nahi diagu, gure hildako eta zaurituak jaso eta zaintzeko.

Esan eta egin. Hantxe ibili ziren 6 egunetan erromatar eta euskaldunak nahasirik, biak eginkizun berdinetan, Ernio azpiko haitzetan. Ez ziren falta inguruko herrietako guraso eta senideak ere, eta hau esan omen zuen haietako aita batek:

- Hau da gure semeen hondamendia! Honi esaten zaio nekez hazi eta errez hil!

Orduz gero omen du Ernio azpiko herriak Errezil izena.

6 egunetara Zelatungo zelai isilak bete omen ziren gudari eta soldaduz: euskaldunen aldetik 100 gudari sendo eta bikain, Larrun buru zutela. Erromatarren aldetik ere100 soldadu, hauek arraza ezberdinetakoak, akaso mertzenario edo esklabo, beraiek jakingo zuten.

Euskal gudariak eta erromatar soldaduak jarri ziren aurrez aurre eta artzain baten adarraren soinuarekin batera hasi zen borroka: hango burdin hotsa, orro, marru... Ernioko haitzetan ez ziren euskaldunak nagusitu baina Zelatungo zelaietan berriz, beraiek uste zuten baino errazago izan ziren garaile.

Han zegoen Larrun bere artzain gudarien artean, bizirik, harro, ileak hego haizearekin nahastuta zituelarik, gorputza eta ezpata erromatarren odol gorriarekin zikindurik.

Erromatarren buruzagia ere bizirik suertatu zen eta elkar hurbildurik honela esan omen zion Larruni:

- Zu omen zara Larrun ospetsua! Niretzako ohorea da zu ezagutzea eta zure gudarien aurka borroka egitea! Gaur eta hemengo borrokan nagusitu zarete, ez nuen uste hain gerlari onak zinetenik, baina gure lurrean izango den hurrengo borrokaldian ikusiko duzue gure benetako indarra nolakoa den.

Hitz emanda zeuden bezala, euskaldun taldea itsasontziz Erromara joan zen. Portura iritsi zirenean, jendez beterik zeuden bazter guztiak beraien zain, euskaldunen zain. Nonbait Erroman oso ospetsuak egin ziren Zelatun eta Ernioko gertakariak. Jendetza izan arren isiltasuna zen nagusi. Larrun buruzagiak aginduta, eraman zuten ontzia denen aurrean zulatu eta ondoratu egin omen zuten.

Erromatarrak harriturik eta mutututa gelditu ziren. Haien artean batek honako galdera oihukatu zuen:

- Zergatik ondoratu duzue zuen ontzia?

- Borroka galtzen badiagu, ez diagu ontzirik beharko eta irabazten badiagu zuen ontzietako bat aukeratu eta etxera joango gaituk.- izan zen Larrunen erantzuna.

Gerra guztietan izaten diren bezala, iruzurti edo traidore bat hurbildu omen zen euskaldunen artera: itxuraz gudarien alde zebilena, baina benetan azpijokoan ari zena. Oktabiano omen zuen izena. Euskaldun gudariei esan omen zien armadura edo jantzi gogorrik ez janzteko soinean, mugitzeko erraztasuna galduko baitzuten borrokarako garaian.

Baina kalte egiteko ustetan hasi zena azkenean mesedegarri gertatu omen zitzaien euskaldunei.

Borrokarako egunean gudari bihurtutako euskal artzainak arin jantzirik agertu omen ziren; erromatarrak berriz, gerriraino burdinez eta larruz estalirik.

Borrokaren hasieran, erromatarren nagusitasuna nabarmena zen: euskaldunak burdin artetik ezin haragirik zauritu; soldaduak berriz, erraz hiltzen zituzten gudurako jaio ez ziren euskaldunak. Baina laster konturatu zen Larrun erromatarren ahulezia sabel azpian zegoela, armadura amaitzen zen tokian. Honela deiadar egin omen zien bere gudariei:

- Sabel barrenetik! Sabel barrenetik!

Mutilak laster entzun zuten nagusiaren esana eta sabel azpitik eraso zietenean garaile atera omen ziren.

Larrun eta bere gudariak Ernio inguruetako bakera itzuli ziren.

Hemen bukatzen da ahoz aho, belaunaldiz belaunaldi niregana iritsi den kondaira. Ez dakigu ezer gehiago gudari haiei buruz, baina ziurrenik artzain lanetara itzuliko ziren.

Hala ere, inguruetako zaharrenek esaten dute Ernioko iraileko jaien inguruan eta hego haizea dabilen egunsentietan Larrun, batzuen ustez Lartaun, izeneko buruzagiaren anima sumatzen dela dantzan haizearen soinu artean.

(Amaiera)

INGURUKO BASOAN

Tabernako mostradore izkinatik, "antena" martxan jarri eta entzundako eztabaida:

- Jo, hi beti danan kontra hao: Nafarroa dijuan autobidea? hori txikizioa! Getaiko superportua eta kirol-portua? etzeok eskubideik! Abiadura Handiko Trena? Zertako? Higatik balitz ez huke gizartia garatuko eta uandala 50 urte bezela biziko giñukek.

- Ze naepa? Dana zementua besteik eztek eta zein ai da poltxikuak betetzen horrekin? Betikuak. Hi beti "linea ofizialan" alde: modernizatu, desarrollatu in ber diu. Ta nik galdetzen diat: ze preziotan?

Katilu txikiko kafetxoa hartu eta liburutegira joan nintzen pauso azkarrean. Datuak bildu nahi nituen, datu "ofizialak". Eta begira zerekin egin nuen topo:

1960an Getarian 2.225 biztanle bizi ziren 436 etxebizitzan. Beraz, kontuak eginda… 5 pertsona pasatxo etxe bakoitzeko.

47 urte geroago, zenbat pertsona gehiago bizi direla uste duzue? 305, hau da, 2.530. Ehunekotan emanda %13ko igoera.

Eta zenbat etxebizitza gehiago daude kostaldeko gure herri arrantzale honetan? Horratx: 805 "kaiola" gehiago; hau da, 1.241. Ehunekotan %184ko igoera. Honek esan nahi du, "kaiola" bakoitzean lehen bost txoritxo bizi ziren bezala, orain bi txoritzar bizi direla.

Etxeak herritarren beharrak asetzeko eraikitzen direla uste dugu. Baina zenbakiek ez dute gezurrik esaten, biztanleak duela 50 urte eta gaur egun ia berdinak dira. Teilatu gorriak, aldiz, ia hiru aldiz gehiago.

- Ai, txato, txato, txato… baina oraingo biztanleen beharrak ez dituk lehengoen berdinak. Orain bakoitzak bi edo hiru logelako "txabola" behar diagu, nahiz eta bakarrik bizi. Logela handi bat norberantzako, bestea bulegotxoa jartzeko, hurrengoa gonbidatuentzako, egongela erraldoia are erraldoiagoa den plasmako telebistarekin erdierdian, bi komun (diarrea biei batera jotzen badigu ere), jakuzzia, IKEAko altzari modernoak han eta hemen… eta sukaldea? Dena inoxidablea, begietan dizdirak mina egin arte: noski sua erabili ere ez diagu egiten, amarengana joaten gaituk jatera!

Etxebizitza duina izatea guztion eskubidea da. Ados. Baina "guztiona" izate hori nola konpontzen da? Kiroldegia manimanoko finala balitz bezala, zozketa alu baterako beteta? Urlia San Primero, 12. eskatza, 2A.. Eta Urlia bere bikotearekin biba eta uluka, besarkadak eta muxuak dozenaka emanez. Alboan, Sandia San Segundo, ez zaio etxerik "tokatu". Berak ere eskubide berdina du, teorian, baina aaaaaaaa zozketa zozketa dek, txikito.



Pentsa beste oinarrizko eskubideekin ere berdina egiten dugula. Jatekoarekin, adibidez. Urlia San Primero, zuk gaur bazkalduko duzu. Sandia San Segundo, sentitzen dugu, baina hi beti bigarren... Hau da, eskubidea guztiona eta oinarrizkoa bada, zergatik egiten da zozketa?

Aldizkarian txalupa-mutil sartu zaigun tautalaren aurreneko zutabea irakurri nuenean grazia egin zidan: sorlekura itzultzen zela zioen, exilio inmobiliarioak bultzatuta. Eta irriño pikaroa marraztu zitzaidan ezpainetan. "Ja, etorkin berriak dizkiagu herrian, haizeak ekarritako zarauztarrak", nire golkorako. Batzuk adreiluen exiliogatik salitre eta salmuera usaina duen herrira (ze klasetako pateretan?); beste batzuk, bihotzeko minen exiliogatik, nortasuna haizeak eraman dion hirira...

Liburutegian datuak atera nituen liburuan maxiatzen nenbilela, horra aurkitu nuen perla: "Argazkiaren aurrealdean jesuiten egoitza ikusten dugu...ezkerrean, orain atontzen ari diren Balentziaga museoa, Mora y Aragon familiarena izandako eraikinean. Inguruko basoan..."

Inguruko basoan... Inguruko basoan... Inguruko basoan...Kukuka ibili nintzen inguruko baso horietan... aurreko parkean dolarrean, kaniketan, txutxupeka...

Eutimio Alberdi:

"Egunean milioi bat kilo antxoa sartzen zen, eta hori guztia gobernatu egin behar zen"

Eutimio Alberdik Kofradia, eskola eta lantoki izan du bizitzan. 1919tik 1922ra eraiki zuten, Gipuzkoako Diputazioa, Bizkaiko Diputazioa eta emakume ezezagun batek emandako dirulaguntzarekin. Garai hartan, kostalde guztiak itsasoan egiten zuen lan: trainerua erabiltzen zuten lanerako; hori dela eta eraiki zen Kofradia, etortzen ziren arrantzaleen babesleku izan zedin.



Ederki eta umoretsu laburtu dizkigu Eutimiok laster beteko dituen 88 urtetan izan dituen bizipenak, esperientziak, bitxikeriak... 1919an jaio zen, berak esan bezala, otsaileko "maiteminduen" egunean, gainera. Garai hartan, bera haurra zenean, bi eskola zeuden Getarian: bata, lehorreko jendearen seme-alabentzat, Elkano kalearen hasieran, eta bestea, arrantzaleen seme-alabentzat, Kofradiko azken pisuan; Eutimio, azken honetan hasi zen eskolan: "Sei urtetik hamalau urtera ibili nintzen eskolan eta orduko maisua Errioxako Don Julian Martinez Gil genuen: hark gaztelaniaz hitz egiten zigun, eta guk euskaraz. Urte batzuk geroago erabat euskaldundu zen, eta guk gaztelaniaz pixka bat ikasi genuen. Uda iristen zenean, gainera, Zarautzera joaten nintzen "botones" Otamendi hotelera; ez zegoen aspertzeko denborarik!". Behin eskola bukatu eta gero, hamalau urterekin, Orlandonean hasi zen lanean (orain bizi den leku berean zegoen fabrika), egurrezko kaxak egiten eta antxoa eta lantzoia salazoian jartzen; bi urte lan horretan pasa eta gero, bertako bulegora pasa zen lanera.

1937ko urriaren 28an, gerra garaia betebetean zela, lehorrera ez joateagatik, boluntario joan zen marinara beste 13 getariarrekin batera: " Ni nengoen taldean, hamalautik 11 euskaldunak ginen, eta beti euskaraz jarduten genuen; behin, halaxe, Kadizekoa zen kabo batek, *kristianoz* hitz egiteko esan zidan, eta nik, euskaldunak kristauak ez ote ginen erantzun nion; berak, ordea, berriro gauza bera agindu zidan, eta orduan nik, popatik hartzera joan zedila erantzun nion, hori bai, gaztelaniaz. Azkenean, komandanteak niri eman zidan arrazoia, eta kaboari, euskara, gaztelania baino zaharragoa zela azaldu zion". Bi urte igaro zituen bertan, eta 1939ko azaroaren 1ean, herrira itzuli zen hogei urterekin. Hasieran, lantxo batzuk egiten jardun eta gero (barrikak egin...), jela fabrikan hasi zen lanean, eta bertan hiru urtez jardun zuen.

> "*Kristianoz* hitz egiteko esan zidan, eta nik, euskaldunak kristauak ez ote ginen erantzun nion"

Eutimiori ezkontzeko garaia iritsi zitzaion: "Sei urte eta gero, 28 urte nituela eta emazteak, Martina Gorostiagak, 26, ezkondu ginen, eta harrezkero hemen gabiltza, oraindik gazte!".

1946an hasi eta hamasei urtez ibili zen itsasoan, batez ere Ezekiel itsasontzian; 1954an, Kofradiako lehendakari hautatu zuten; bertan 25 urte egin zituen (horietako zortzi urte itsasoan ibiliaz, 1962 arte), eta 1979an, zertxobait aspertuta, jubilatu egin zen: "Urte horietan arrain pila bat harrapatzen zen: pentsa, egunean milioi bat kilo antxoa sartzen zen, eta hori guztia gobernatu egin behar zen!". Horrez gain, Gipuzkoako Kofradien Federazioko lehendakari orde ere izendatu zuten, eta Gipuzkoako kofradia guztien artean Pasaian irekitako salazoi fabrikako buru ere jarri zuten.

Kofradiako lehendakaria zela, arrantzaleentzat hainbat etxe egitea lortu zuen, eta hala nola, Menditxon 20 etxe egin zituen, Txirrintxoneko lursailean 22, eta Orlandok fabrika zeukan lekuan (Herrerieta kalean, erementarien kalean), lur sailagatik zazpi milioi ordaindu eta gero, 35 etxebizitza egitea lortu zuen kofradiaren izenean.

Azken urteetan, ohitura onak hartuta dauzka: goizero, pasiatzera irteten da, eta arratsaldero, emaztearekin batera kafetxoa hartzen du lagunekin.

Polboroiak

Osagarriak:

Kg 1 irin

500 gr azukre (glass eran)

500 gr almendra birrindua

500 gr txerri gantza

Egiteko era

Hasi aurretik, birrindutako almendra pare bat minututan labean tostatu eta iraztontzi baten bidez irin guztia pasa; ondoren, azukrea, birrindutako almendra eta txerri gantza nahastu eta pixkanaka irina gehitu.

Hori guztia gelditu gabe oratu, orea mahai gainean itsasten ez den arte, eta gainera, oreak ez du zartatu behar.
Irudiak egin eta labean sartu pixka batean (denbora gutxi). Ateratakoan glass azukrea bota gainera.

On egin!!!

TXANTXA. QUICK

***Idazlea**: Patxi Zubizarreta (Ordizia, 1964)*
***Argitaletxea**: Erein*
***Argitalpen urtea**: 2006*
***Orri kopurua:** 190*



Patxi Zubizarretaren nobela honekin natorkizue hilabete honetan. Kasu honetan, idazleak alde batera utzi ditu orain arte jorratutako haur eta gazte literatura.

Idazleak eleberri honen bitartez gauza asko eta denak batera kontatu nahi izan ditu: telebista programa batzuen etika falta, bikote baten porrota, alargunen bigarren aukerak… Gai eta pertsonaia asko aurkeztu ditu eta pertsona bakoitzak bere hizkera eta izaera izango ditu.

Hainbat gai landu arren, azpimarragarria da telebistari eta gaur egun honek sortzen duen eraginari eman nahi izan dion garrantzia. Bizitzan, telebista ikusten ari garenean bezala, zapping egiten dugula dio Zubizarretak; unean bizi duguna ez baldin bazaigu gustatzen amaiera noiz iritsiko zain ez garela gelditzen eta "jausiak" egiten ditugula azpimarratzen du Patxi Zubizarretak.

Orain arte idazle honek eskaini digun literatura alde batera utzi eta nobela moderno edo garaikide bat idaztera ausartu da. Berak eleberrian aipatzen zaigun "jausia" literaturari **atxiki** dio eta haur eta gazte literatura idaztetik literatura garaikidea idaztera pasa da. Agian egiten zuena gustatzen ez zitzaiolako, edo agian ez.



Hortz Klinika Argidental S.L.
Dr. J.L. Soulier
- Odontologia
- Periodontzia
- Endodontzia
- Inplantologia
- Prebentzioa
- Erreabilitazioa
- Hortz estetika
- Protesiak
Maria Etxetxiki kalea, 1 behea 20800 ZARAUTZ
clinicadentalsoulier@ifonegocio.com T.: 943 130 278

GETARIARRON TOPAGUNEA
artzape
JARRI ZURE PUBLIZITATEA

] abenduko eta urtarrileko agenda

] Gabonak

[Abenduaren 22a, larunbata]
Txotxongilo taldea
PRINTZE TXIKIA
Noiz: 18:00etan
Non: Eskolako aretoan

[Abenduaren 24a, astelehena]
OLENTZERO, herriko taldeak kalez kale kantari
Noiz: arratsaldean

[Abenduaren 27a, osteguna]
BILBOKO GABONETAKO PARKERA (P.I.N.) BIDAIA

[Abenduaren 29a, larunbata]
EUSKADI-KATALUNIA partidarako autobusa
(San Mames)
Informazioa eta izen-ematea:
Gure Txerun

[Urtarrilaren 2a, asteazkena]
HAUR-PARKEA
Quad-zirkuitoa, puzgarriak, ohe elastikoak, ludoteka
Noiz: goizean eta arratsaldean
Non: herriko frontoian
Oharra*: eguraldi txarra egingo balu kiroldegian izango litzateke

[Urtarrilaren 4a, ostirala]
BIZAR ZURI
Noiz: 18:30ean

[Urtarrilaren 5a, larunbata]
ERREGEEN KABALGATA
Noiz: 18:30ean

ABENDUA

[Abenduaren 27a, osteguna]
ANGEL CUERDO GALARRAGA: "Mekong ibaia, bizitza tsunamiaren ondoren" izeneko proiekzioa
Noiz: 20:00etan
Non: Aldamar kulturgunea, Aldamar parkea, 3

[Abenduaren 27a, osteguna]
ANTZERKIA: GEZURRA GEZURRAREN GAINEAN
antzezlana helduentzat, Orratx taldearen eskutik
Noiz: 22:00etan
Non: Eskolako zine aretoan
Zuzendaria: Lierni Fresnedo

] Kirola

[Abenduaren 23a, igandea]
GETARIAKO GAZTE ETA HELDUEN BINAKAKO V. PILOTA TXAPELKETAREN FINALA
Ligako finala
(3. eta 4. postuak) eta
Kopako finala
(1. eta 2. postua).
Noiz: 12:00etan

[Abenduaren 31a, astelehena]
San Silbestre
KROS HERRIKOIA
Mailak:
Benjaminak (800 m)
Alebinak (1.200 m)
Infantilak eta kadeteak (2.000 m)
Helduak (5.000 m)
Noiz:12:00etan
Antolatzailea:
Sahatsaga kiroldegia

] Gaztelekua

Gabonak

Noiz: abenduaren 26, 27 eta 28an eta urtarrilak 2, 3 eta 4ean,10:00-13:00 eta 14:00-20:00

Abenduaren 27a, osteguna
Goizez, TAILERRA: TXAPAK
Arratzaldez: LAGUN EZKUTUAREN OPARI BANAKETA
Abenduaren 28a, ostirala
Goizez: KIROLA
Arratsaldez:
IRTEERA ZINEMARA
Urtarrilaren 2a, asteazkena
PRO EVOLUTION SOCCER TXAPELKETA
Urtarrilaren 3a, osteguna
Goizez:
FUTBOLIN TXAPELKETA
Arratsaldez: TAILERRA
Urtarrilaren 4a, ostirala
Goizez:
FUTBOLIN TXAPELKETA
Arratsaldez,
TAILERRA: PINTZAK

URTARRILA

[Urtarrilaren 13a, igandea]
Urtean hil diren jubilatu eta pentsionisten aldeko meza. Ondoren, hamaiketakoa elkartean
Noiz: 11:00etan
Antolatzailea:
Arrantzale Zaharren Elkartea

[Urtarrilaren 13a, igandea]
BERTSO-JAIALDIA
(San Anton jaien egitarauaren barruan)
Noiz: 18:30ean
Non:
Salbatore Deunaren elizan

[Urtarrilaren 16a eta 17a]
San Anton jaiak
Urtarrilak 17, osteguna: SAN ANTON EGUNA (Txakolin-uzta berriaren aurkezpena, trikitilariak, bertsolariak, herri kirolak, musika…)

[Urtarrilaren 20a]
V. SAN ANTON ZALDI LASTERKETA
Noiz: 11:00etan

[Urtarrilaren 20, igandea]
GETARIAKO MUSIKA BANDAren SAN ANTONetako KONTZERTUA
Noiz: 12:30ean
Non:
Salbatore Deunaren elizan

[Urtarrilaren 21etik 25era]
GETARIA ETA HIRUGARREN MUNDUA -XVI. JARDUNALDIAK 2007-2008
Non: Alondiga Zaharrean
Noiz: 21etik 24ra, 20:00etan eta 25ean 17:00etan
Antolatzailea:
ELAN-EUSKADI G.K.E.
Laguntzaileak: KUTXA, Getariako Udala

[Urtarrilaren 26-27]
Luz Ardiden-era
ESKI IRTEERA

] Lehiaketak

INAUTERIAK 2008
KARTEL LEHIAKETA
Oinarriak
GAIA: Getaria eta inauteriak
Kartelak A3 neurrikoak
Partehartzaile bakoitzak lan bakarra aurkeztuko du
Lanak aurkezteko azken eguna eta ordua:
URTARRILAK 18, 19:30

FULDAIN farmaziaren zaintza egunak: abenduaren 24tik 29ra (biak barne)

telefono interesgarriak

Udal bulegoa 943 896 024
Faxa 943 140 190
e-mail: *udala@getaria.org*
Kiroldegia 943 140 432
Kirol-portua 943 580 959
Taxiak
Segundo 607 720 242
Jose Mari 607 403 498
Udaltzaingoa 943 896 146
Liburutegia 943 896 147
Anbulatorioa 943 140 957
Botika 943 140 441
Herri Eskola.....943 140 729
SOSdeiak 112
Kofradia 943 140 200

artzape aldizkaria
943 000 548
artzape@topagunea.com

Trakatan trakatan hiru errege...

Udalak utzitako argazkiak.

Gabonaren argazkia martxan da gure begi ninietan: kaleak alaitzen dituzten argiak piztu dira, Olentzeroren irudia edonon ikus daiteke, etxeak apaintzeko hornidurak bazter guztietan... Badirudi 2006ko Gabonak atzo bertan zirela, baina ez, dagoeneko 2007 urteari agur esateko ordua iritsi zaigu. Aurtengo Gabonetan, ohitura galdu gabe, Olentzero, Jaiotza, Bizar Zuri, Erregeak... ikusi ahal izango ditugu. Duela urte batzuk ere, argazkian ikus daitekeen moduan, horiek guztiak izaten ziren gure herrian: noski, aldatu direnak, bertan agertzen diren lagunak dira.

Atal honetan jartzeko moduko argazki zaharren bat baduzu, deitu 943000548 telefonora edo artzape@topagunea.com helbidera bidali.

ARRAINAK, ITXASKIAK, IZOZTUAK

ELKANO ARRAINDEGIA

KAIA Telefonoa: 943 140 192 20808 GETARIA

zorion agurrak

Amets Galdos
Urtarrilak 21
Zorionik beroenak zure 10. urtebetetzean. Aita, ama eta Onditz.

Ander Irigoien
Urtarrilak 10
Zorionak "potolon". Etxeko denen partetik. Ondo pasa eguna.

Leire Aldalur
Urtarrilak 7
Zorionak eta 9 muxu etxeko printzesarentzat

Joel Uranga
Abenduak 9
Zorionak etxeko gizontxoari.

Isaura Aranguren
Urtarrilak 31
Zorionak ama eta gainerakoen partetik. Ondo pasa.

Liber Perez
Urtarrilak 1
Zorionak eta egun ona pasa 5. urtebetetzean. Familiaren partetik muxu pila bat.

Xabier Larrañaga
Urtarrilak 21
Zorionak txiki! Ondo pasa eguna familia guztiaren partetik.

Ainhoa Alberdi
Urtarrilak 25
Zorionak prexioxa!muxu pillua zuretzat. Familiako danon partetik.

Eneko Perez
Abenduak 13
Izotz ondoko eguzki neguaren parre... Ongi etorri, Eneko.

Luken Vidal
Urtarrilak 8
Zorionak txapeldun! Egun ona pasa familiaren partetik, bereziki Juneren partetik. Zortzi muxu.

Norbait zoriondu nahi izanez gero, argazkia bere testutxoarekin Txeruko postontzian utzi edo eta Eskualtxetara eraman. Gogoratu! bazkideok doan daukazue eta bazkide ez zaretenok 4 € ordaindu beharko dituzue argazki bakoitzagatik.

URTE BERRI ON!!!